

2011ko MERKARTEAN PARTEHARTZEKO

BALDINTZAK

- Partehartzaileak, Bizkaiko ekoizleak izatea bultzatuko bait da eta Bizkaiko Herrialdean kokaturik egon beharko dira behar bada, baita ere elkarturik egotea eta Lorra Kooperatibako kideak direnak bultzatuko dira. Erakunde antolatzaileak bestelako partehartzailerik ere onartu ahal izango du azoka hobetzeko eta osatzeko.
- Artisaurako nekazaritza ustiategiak bakarrik hartuko dute parte, eta ez beste mota batzuetako industriak, hau da, salmenta masifikatuak egiten dutenak.
- Eskaera orriarekin batera dokumentu hauen kopiak bidali:
 - Ustiategi-erregistroko txartela.
 - Osasun erregistroa, egunean.
 - E. I. Z..
 - Elikagaiak erabiltzeko edo manipulatzeko karneta. Enboteiltzeko erregistroa.
 - Kalitate buruzko jatorri-izen, labeletara partehartze eta elkarte-bazkide ziurtagarriak
- Erakusten diren barazki-frutagintzako produktuak, kalitatezkoak izango dira eta, beti, produkzioa bakoitzaren ustiategikoa izan beharko da. Antolatzaileak, behar bada, ustiategia bisitatzeko eskubidea dauka, azoka ospatu baino egun batzuk lehenago.
- Erakusten diren produktuek ekoizleen ustiategietan lortuak bakarrik izan behar dute, ez delarik birsalmentarako ekarritako kanpoko produkturik onartuko. Produktu hauek etiketatze eta ontziratze kontrola araupetzen duten arautegietan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.
- Produktuen betekizunak honako hauek dira:
 - Txakolinak, Bizkaiko Txakolina Jatorri-Izena duena izan behar du. Botilak etiketa egokiak dituztela aurkeztuko dira.
 - Sagardoa, Bizkaiko sagardoa Elkarteko kide diren ekoizleena izango da. Botilak etiketa egokiak dituztela aurkeztuko dira.
 - Eztiak Euskal Kalitate-Labela eduki beharko du.

- Gazta, Idiazabal Jatorri-Izenekoa izango da.
 - Ekologiko-ekoizpenaren arauak betez gertatutako produktuen kasuan.
-
- Erakunde Antolatzaileak, ekoizleen beharrianak, eta azokaren helburuak kontuan hartuz egingo du postuen banaketa.
 - Antolatzaileak onarturiko produktuak bakarrik salduko dira.
 - Erakunde antolatzaileak ekoizleen hautaketa egiten eta, behar dituen agiri guztiak eskatzeko eskubidea dauka. Antolatzaileen erabakiak ezin izango dira ukatu.
 - Partehartzaileek ezarritako arauen bat ez betetzea, nahiko arrazoi izango da Erakunde antolatzaileak neurri egokiak hartu eta dagokion irtenbidea erabakitzeko.

STAND LEHIAKETA

Stand bakoitzaren itxura hobetzeko asmotan, Arteako Udalak lehiaketa bat prestatu du, zeinean epaimahai batek standen dekorazioa eta eskulangileen janzkera baloratuko baitu. Sari hauek hiru ataletan banatuko dira:

- a) Artisautza**
- b) Barazki, fruitu, sagardo eta txakolina**
- c) Gazta, ezti, ogi eta euskal pastela.**

Sarien balioa hurrengo hauek izango dira:

- 1. Saria: 200 €
- 2. Saria: 150 €
- 3. Saria: 100 €